

WALIKALE WEBQUEST GYMKHANAREN OINARRIAK.



1. Antolakuntza:

Hauek sustatu dute lehiaketaren antolakuntza: ALBOAN FUNDAZIOAK, Bilboko Udalaren eta Deusto Tech-en lankidetzarekin..

2. Oinarri bereziak:

Dokumentu hau WALIKALE WEBQUEST izeneko lehiaketaren oinarriei buruzkoa da. Ekimena Garate Aretoan hasi eta amaituko da, eta Deustuko Unibertsitateko instalazioetan, Bilbon, garatuko da.

3. Oinarrien onarpena:

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri orokorrak eta sustapen-ekintza bakoitzaren oinarri bereziak guztiz eta baldintzarik gabe onartzea. Talde parte-hartzaile baliozkotzat aitortua izateko, oinarri orokor hauen 4. puntuari ezarritako betekizunak bete behar dira. Deialdi honetan parte hartzeko, oinarri hauek guztiz onartu behar dira, bai eta irudi-eskubideak eman ere. Oinarrien interpretazioari buruzko edozein zalantza antolakuntzak argituko du nahierara.

4. Parte hartzeko betekizunak:

14 eta 25 urte arteko adina duen edozein pertsonak hartu dezake parte WALIKALE WEBQUEST lehiaketan. Erronkaren diseinuan parte hartu duten pertsonak ezin izango dute parte hartu (ALBOANeko edo Deusto Tech-ekoek).

Bi sari-kategoria izango dira: bata 18 urtetik beherako parte-hartzaileen taldeentzat (18ak barne); eta, bestea, 19 urtetik gorako parte-hartzaileen taldeentzat.

18 urtetik beherako kategorian, heldu batek lagunduta etorri beharko dute taldeek.

Parte-hartzaileak 4 eta 6 lagun arteko taldetan bildu beharko dira derrigorrez, baldin eta aurretik azaldutako betekizunak betetzen badituzte. Talde bakoitzean bozeramale bat izendatuko da, eta mugikorrean aplikazioa deskargatuko da. Aplikazio horren bidez, erronkako zenbait probari erantzungo diote. Ahalik eta denbora-tarte laburrenean galdera zuzen gehien erantzuten dituen taldeak irabaziko du.

Talde bakoitza zuzenduko duen pertsonak datu-konexiodun gailu elektronikoko bat izan behar du gutxienez, eta horrek ANDROID teknologia erabiltzea ezinbestekoa da. Wifi askera konektatzeko puntuak izango dira, gainerako taldekideek erantzunak bilatzen lagundu dezaten.

Erronkaren ibilbidea ez da bete behar ezarritako ordena batean, ordenarik gabe ebatz daitezke probak.

Talde guztiek galdera guztiei erantzun ondoren, sailkapen bat egingo da, eta talde bakoitzak asmatutako erantzunen kopurua agertuko da han, bai eta zenbat denbora behar izan duten erronka osorik egiteko.



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa



GATAZKARIK
GABEKO
TEKNOLOGIA

www.gatazkarikgabekoteknologia.org



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

WALIKALE WEBQUEST GYMKHANAREN OINARRIAK.



Bi sari ezarriko dira, bat kategoriako, eta bakoitzak 400 €-ko balioa izango du. Taldeak balio hori duen opari-txartel bat jasoko du, eta sariaren dirua zer oparitan inbertitu nahi duen jakinaraziko dute. ALBOAN, epaimahaiaren oniritziak, opariaren erosketa kudeatzeaz arduratuko da, eta talde irabazleei helarazteaz.

Gainerako parte-hartzaileek oparitxo bat jasoko dute parte hartzeagatik. Izen-ematea doakoa da.

5. Ekitaldiaren datak

Ekitaldia 2016ko azaroaren 26an izango da, antolakuntzarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik beste data batzuetan egin behar ez bada.

11.00etatik 13.30era egitea aurreikusita dago, baina antolakuntzak aldaketak egin ditzake aurretik jakinarazi gabe ezinbesteko premiengatik edo edozein arrazoiengatik.

6. Izen-emateak

14 eta 25 urte arteko pertsonak www.tecnologialibredeconflicto.org/walikalewebquest web-orrian eman dezakete izena urriaren 28tik azaroaren 23ko 22:00etara arte. Izena emateko epea lehenago buka daiteke, epea amaitu aurretik lekuak agortzen badira. Kasu horretan, erreserba-zerrenda bat prestatuko da. Izen-ematea doakoa da eta osorik bete behar da. Datu hauek jarri behar dira:

- Taldeko parte-hartzaile guztien izena eta abizenak (gutxienez 4 eta gehienez 6).
- Helbide elektronikoa. Gymkhanari buruzko jakinarazpenak igorriko dira helbide horretara, eta, ondoren, ALBOANen kanpainari buruzkoak.
- Parte-hartzaileek zer izen jarri nahi dioten taldeari.
- Taldeko kapitainaren izen osoa.

Izena eman duten pertsona guztiek berrespen-mezu bat jasoko dute posta elektronikoz bidez. Antolakuntzak presazko edozein jakinarazpen egin behar badu, kanal hori erabiliko du.

Izena emandako pertsona guztiek Deustuko Unibertsitateko Garate Aretoaren sarreran (Bilbo) egon behar dute 2016ko azaroaren 26ko 10:45ean, parte hartuko dutela berresteko eta erronkarako beharrezko informazio guztia jasotzeko.

Komenigarria da parte-hartzaileek izen-ematearen berrespen-mezua inprimatuta ekartzea, edo, bestela, haren pantaila-argazki bat gailu elektroniko batean.

Izen-ematea erreserban duten taldeei azaroaren 26an ordu berean eta leku berean agertzea gomen datzen zaie, izena emandako taldeetako bat agertuko ez balitz ere. Plazaren erreserba-mezua ekarri beharko dute inprimatuta, edo haren pantaila-argazki bat gailu elektroniko batean.

Ekitaldiaren antolatzaileak kanporatu egingo ditu adierazitako jarraibideak betetzen ez dituzten izena emandako taldeak.



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa



GATAZKARIK
GABEKO
TEKNOLOGIA

www.gatazkarikgabekoteknologia.org



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

WALIKALE WEBQUEST GYMKHANAREN OINARRIAK.



7. WALIKALE WEBQUESTen garapena eta funtzionamendua

WALIKALE WEBQUEST gymkhana bat edo aztarna-joko birtual bat da. Deustuko Unibertsitatearen Kanpusean (Bilbo) garatuko da, ALBOANen www.gatazkarikgabekoteknologia.org kanpaina eta gai horri buruzko www.walikale.org on online jokoa ezagutarazteko. Mugikorrak, sortzen denetik bota arte, egiten duen bidaia egitean datza. 12 probatan banatutako (2 geldialdiko) 6 geldialdiz osatuta dago.

Proben erantzunak kanpainako edukiak dira, eta 6 lekutan kokatuta egongo dira. Taldeak, maparen laguntzaz, aurkitu egin beharko ditu. Puntuak kokatu ondoren, galderak Interneten bilaketaz eginez erantzungo dira.

Probetan sartzeko, talde bakoitzak aplikazio bat deskargatu beharko du gailu mugikor batean. Aplikazio horren bidez, GPSa erabiliz, taldeak kanpuseko instalazioetan barrena ibiliko dira, eta erantzun beharreko galderak non dauden adieraziko die aplikazioak.

OSO GARRANTZITSUA DA ERANTZUNAK EMANGO DITUEN TELEFONOAK ANDROID TEKNOLOGIA IZATEA.

Lehiakideek eskatutako datuak emango dizkiote erakunde antolatzaileari proba hasi baino lehen, izen-ematea egiaztatzeko. Ekitaldiko arduradunek uneoro eta proba bakoitzean emandako jarraibideei kasu egin beharko die parte-hartzaile bakoitzak. Jarraibideak zorrozki betetzeari ezezkoa esanez gero, berehala kanporatua izango da parte-hartzailea. Lehiakideetako baten arduragabekeria dela eta, gorabeheraren bat izango balitz, ardura zibilak nahiz penalak pertsona horri egokituko zaizkio. Probetako edozein begirale laguntzailek, antolakuntzak berretsi ondoren, arauak betetzen ez dituzten edo jokabide desegokia duten talde parte-hartzaileak deskalifikatu ahal izango ditu.

Ekitaldia hastean, talde bakoitzak mapa bat jasoko du, erantzun beharreko galderen puntuak aurkitu ahal izateko, bai eta ekitaldiko kit parte-hartzailea ere. Ez diote aurretik ezarritako ordena bati jarraitu beharko mini-erronkak egiteko. Aztarna baten bidez puntu batera iristean, puntu horretako proba egingo dute (taldeko kapitainak sartuko ditu erantzunak, gainerako taldekideekin adostu ondoren), eta hurrengo puntura joan ahal izango dira.

6 puntuak dagozkien probekin egin ondoren, Garate aretora joan beharko dute, eta beharrezko egiaztapenak egingo dituzte han, azken sailkapena egiteko. Kategoria bakoitzean talde irabazle bat izango da, hain zuzen, ahalik eta lasterren proba gehien ondo egin dituzten taldeek irabaziko dute.

8. Saria

Talde irabazle bakoitzak 400 €-ko txeki sinboliko bat jasoko du, taldeak bere beharretarako egokitzen jotzen duen zerbituetan inbertitzeko. Talde irabazleek abenduaren 15a baino lehen jakinaraziko diote ALBOANI zertan inbertitu nahi duten saria, eta ALBOANeko pertsona batek gastua egingo du, taldearekin edo taldekideetako batekin edo batzuekin batera.

Taldeak ez badu erabakitzen abenduaren 15erako zertan gastatu nahi duen saria, bigarren taldea izendatuko da astebeteko epean egin dezan.



ALBOAN
Jesuitek bultzatutako Fundazioa



GATAZKARIK
GABEKO
TEKNOLOGIA

www.gatazkarikgabekoteknologia.org



WALIKALE WEBQUEST GYMKHANAREN OINARRIAK.



9. Talde irabazleen nortasuna argitaratzea

Irabazleek beren izena ALBOANek, Bilboko Udalak eta Deusto Tech-ek egokitzen jotako baliabideen bidez argitaratzea onartzen dute, lehiaketa amaitu eta 2 asteko epean gehienez.

10. Datu pertsonalen tratamendua

Parte-hartzaileek antolakuntzari emandako datuak haren jabetzako fitxategi automatizatu batean sartu ahal izango dira eta datu pertsonalen babesaren arloko indarreko legediari jarraiki tratatu.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoari jarraiki, zure datuak ALBOAN FUNDAZIOAREN ardurapeko fitxategi batean sartuko direla jakinarazten dizugu, eta antolakuntzaren jarduerari eta jakinarazpenei buruzko informazioa igortzeko. Zure helbide elektronikoa edo telefono-zenbakia eman baduzu, baliabide hauen bidez informazioa jasotzeko baimena ematen ari zara. Datuen aurka egiteko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo datuak ezerezteko eskubidea jakinarazpen idatzi bat igorri egikaritzeko da ondoko helbidera idatziz Padre Lojendio 2-2º 48008 Bilbo.

Ekitaldiko erakunde sustatzaileek edozein baliabideren bidez ekitaldian hartutako irudiak eta bideoak erabili ahal izango dituzte ALBOANek, Bilboko Udalak eta Deusto Tech-ek sustapen-xedeetarako, irudietako subjektuen baimena eskuratu ondoren. Parte hartzean lehiaketako oinarriak onartzen direla irizten da, eta pertsona bakoitzak irudi-eskubideak lagatzen dizkiola erakunde antolatzaileei eta erakunde horiek irudiak erabiltzeko izenda dezakeenari.

Sare sozialetan igotako argazkien kasuan, legedia aplikagarria sare sozial bakoitzari dagokion berariazko eskumenarena da.



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa



GATAZKARIK
GABEKO
TEKNOLOGIA

www.gatazkarikgabekoteknologia.org



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO